



Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa; horren bidez, Pasaiako Udalari gomendatzen zaio Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzako Lurralde Epaimahaiak balio justuko espediente batean eskatu zuen balorazio txostena bideratu dezala.

Aurrekariak

1. (...) andrea Arartekoari zuzendu zaio eta adierazi dio Pasaiako Udalak ez duela urratsik egin Azkuene, Errenteria eta Ulia kaleetako urbanizazio-obrek eragindako (...). finkari dagokion balio justuko espedientea izapidetzeko prozesuan.

2003ko irailaren 26an Pasaiako Udalak erreklamatzailarena zen Azkuene kaleko (...)eko lokala desjabetzeko espedienteari eman zaio hasiera. Desjabetzea 2005eko otsailaren 9an bete zen eta, data horretan bertan, okupazio aurreko akta gauzatu zen.

Gero, pertsona horren arabera Pasaiako Udalari egozgarriak diren hainbat atzerapenen ondoren, 2004ko maiatzaren 20an, hala adostuta, balio justuko izapidea egin zen, baina, adostasunik lortu ezenez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearekin bat etorriz, 2004ko ekainaren 30ean horren inguruko prezio orria aurkeztu zuten. 2005eko otsailaren 4an Udalak administrazioaren prezio orria aurkeztu zuen; hori, ordea, baztertu egin zen eta, ondorioz, espedientea Nahitaezko Desjabetzako Lurralde Epaimahaiari helarazi zitzaion.

2005eko uztailaren 7an Nahitaezko Desjabetzako Lurralde Epaimahaiak balio justuko espedientea ebazteke uztea erabaki zuen, ebazpena emateko beharrezkoa baitzen administrazio desjabetzaileak “*desjabetu beharreko lurrari dagokion zerga-poligonoko erabilera haztatu bidezko aprobetxamenduen kalkulua*” egitea. Pasaiako Udalak, ordea, ez du oraindik delako txostena prestatu.

Azkenik, 2006ko urtarrilaren 19an, txostena ez egin izanaren ondorioz hainbat eten izan zirela ikusita, Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzako Lurralde Epaimahaiak espedientea Pasaiako Udalari itzultzea erabaki zuen.

Orduz geroztik, eta nahiz eta espedientea itzuli zenetik ia bi urte eta okupazio aurreko akta gauzatu zenetik ia lau urte igaro diren arren, Udalak ez du bidezko txostena egin espedientea izapidetzen jarraitu ahal izateko.

Aurreko datu horiei gehitu behar zaie, Epaimahaiak espedientea itzuli zuenez, Udalak Hirigintzako teknikariaren 2006ko martxoaren 7ko txostena bidali



ziola interesdunari, berak hala eskatuta, eta espedientea, behar bezala osatuta, Desjabetzako Lurralde Epaimahaiari albait arinen helarazteko konpromisoa hartu zuela.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, kexa-idazkian planteaturiko gaiari buruzko informazio egokia eskatu zion Arartekoak Pasaiko Udalari.

Udalak Hirigintzako teknikariaren 2007ko apirilaren 17ko txostena bidali zigun, egindako informazio eskaerari erantzunez. Txosten horren arabera, beharbada Udalaren atzerapena justifikatzeko arrazoirik ez egon arren, interesdunari behin eta berriro adierazi zitzaion udal teknikariak, lan asko izatearen ondorioz, ezin izan zutela Desjabetzako Lurralde Epaimahaiak eskatu zuen balorazioa egin. Gainera, egun, Udalak arkitekto bakarra du eta, horregatik, txostena egin duen teknikariak adierazi du ezinezkoa dela epea zehaztea, nahiz eta albait arinen egitea hitzematzen duten.

Bestalde, txostenak zioen jada ordaindu zitzaiola interesdunari administrazioak ezarritako balio justua eta ez zuela uste alde handirik egon zitekeenik horren eta Desjabetzako Epaimahaiak ezar zezakeenaren artean. Halaber adierazi zuen pertsona horren eskubideak bermatuta daudela, lege horren arabera, balio justua ezartzen sei hilabete baino gehiagoko atzerapena badago, interesdunak atzerapenagatik dagozkion legezko interesak jasotzeko eskubidea izango baitu.

Amaitzeko, txostenak adierazi zuen, ikuspegi guztietatik, espedienteko interesdunen eskubideak bermatuta zezudela eta ez zuela uste, “errespetu osoz esanda”, gaiari garrantzi handiegia eman behar zitzaionik.

Ustez Pasaiko Udalak bere egiten zuen txosten tekniko hori aztertuta, adierazi genien ulertzen genuela administrazioak batzuetan ezustekoak eta langile falta izatea eta, ondorioz, lana metatzea, baina eskatutako txostena egiteko ia bi urteko atzerapena ezin justifika zitekeela, teknikariak berak onartu zuen bezala.

Bestalde, aipatu genuen biztanleek oro har eta, bereziki, espediente batean interesatuta dauden pertsonen eskubidea dutela beren administrazioak egokitu zaizkion eginkizunak eraginkortasunez eta behar bezain arin betetzen dituela berma dakien. Horretarako aurreikusi dira prozedurak eta epeak, baita, kasu honetan bezala, beste erakunde batek bi alderdiek aurkeztutako prezio orriak aldera ditzala eskatzeko eskubidea ere. Hori guztia, Administrazioak bere betebeharrak betetzen ez dituenean, arauak beste berme edo konpentsazio batzuk ezartzearen kaltetan izan gabe.



Ondorioz, gure ustez, Udalak albait arinen hartu behar zituen eskatutako txostena egiteko neurriak eta premiaz bidali behar zion espedientea Lurralde Desjabetzako Epaimahaiari, behar bezala bete ondoren.

3. Gogoeta horiek 2007ko maiatzaren 11n helarazi genizkion Udalari, baina oraindik ez dugu gure eskaeraren inguruko erantzunik jaso, zuzeneko hainbat gestio eta dagokion errekerimendu formala bideratu ditugun arren.

Horiek horrela, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizugu.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, adierazi behar dugu dagokion prozedurari jarraipena emateko beharrezkoa den edozein administrazio izapide ez betetzeak Administrazioa behar bezala jarduten ari ez dela erakusten duela eta, beraz, hori agerian utzi behar du Ararteko erakundeak.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1 eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebeharrak hori aurkeztutako eskaerei arrazoizko epearen barruan erantzuteko betebeharra da.

Balio justuko espedienteari jarraipena emateko beharrezko izapidetzea ez betetzea ez dator bat Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5 artikuluan aipatzen den betebeharrarekin. Hori dela-eta, esan behar da ebazpenaren edukiarekiko derrigorrezkoak eta erabakigarriak diren txostenak administrazio bereko edo beste administrazio bateko organoari bideratzean, ebazteko epea atzeratu ahal izango dela, baina inolaz ere ez hiru hilabete baino gehiago.

Administrazio publikoen zerbitzura dauden eta gaiak aztertzeaz arduratzen diren langileak nahiz instrukzioak egin eta ebazpenak emateko administrazio organo eskudunetako titularrak dira, beren eskumenen eremuan, berariazko ebazpen hori epean emateko edo, kasu honetan bezala, Desjabetzako Lurralde Epaimahaiak eskatutako balorazioa bideratzeko legezko betebeharra betetzeaz zuzenean arduratzen direnak.



2. Aurreko idatz-zatian adierazitako testuinguruan, gutxi gehiago arrazoitu daiteke ebazpen honetako jasotako aurrekariak ikusita; nolahi ere, azpimarratu beharrekoa da ezin justifika daitekeela Pasaiako Udalak, bi urte eta erdi igaro ondoren, legez bete behar duen izapidea bete ez izatea eta, gainera, zer eperen barruan egin ahal izango duen ez dakiela adieraztea, administrazio publikoek eraginkorrak izan eta biztanleen zerbitzura egotearen irizpideetan oinarrituta jardun behar dutela dioten printzipio orokorrak erabat arbuatuta.

Ezin onar dezakegu, ezta ere, Pasaiako Udalak esandakoa, alegia, pertsona horren eskubideak bermatuta daudela, izan ere, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 56. artikuluekin bat etorriz, interesdunak, kalte-ordain gisa, balio justuaren legezko interesa jasotzeko eskubidea izango du desjabetze espedientea legez hasi zenetik sei hilabete igaro badira eta oraindik ez bada zehaztu, behin betiko ebazpen bidez, desjabetutako gauza edo eskubidearen balio justua.

Planteamendu hori baiesteak Udala kasuan kasuko izapidea behar bezain arin ebaztera behartuta ez dagoela onartzea ekarriko luke. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak honela dio zioen azalpenean: *“Legearen benetako helburua biztanleek Administrazioaren berariazko erantzuna jasotzea eta hori ezarritako epean jasotzea da. Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, Administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezten bermatzen du.”*

Administrazio publikoak legezko betebeharrak ditu eta, bere jarduera-ezari aurre egiteko, ezin ditu biztanleek dituzten bermeak aipatu bere jarduna mugagabe atzeratzeko erabakiaren arrazoi posible gisa.

3. Administrazioek, beren betebeharrak betetze aldera, legezko mekanismo nahikoak dituzte lan askoko garaiei eta/edo giza baliabideak nahikoak ez direneko aldiei aurre egiteko.

Horrela, aholkularitza- eta laguntza-kontratuak egin ditzakete eta horien helburua, besteak beste, era horretako egoerei aurre egiteko txostenak egitea da. Administrazioak maiz erabiltzen ditu mekanismo horiek. Herri Administrazioen Kontratuaren Legeak –ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua– 202. artikuluan dio kontratu horiek ase beharreko premiei erantzuteko giza baliabide eta baliabide material nahikoak ez daudenean egin ahal izango direla.



Gainera, mota horretako kontratuak, hauen zenbatekoa 12.020,24 eurotik gorakoa ez denean, kontratu txikitzat jotzen dira eta, beraz, horietan, espedientea izapidetzeko, nahikoa da gastua onartzea eta dagokion faktura espedientean jasotzea (201. artikulua, 56. artikuluari lotuta).

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

43/2007 GOMENDIOA, azaroaren 22koa, Pasaiako Udalari egina

Albait arinen, desjabetu den lur eremuari dagokion zerga-poligonoaren erabilera haztatu bidezko aprobetxamenduen kalkulua egin dezala eta hori Nahitaezko Desjabetzako Lurralde Epaimahaiari bidal diezaiola, eten den balio justuko espedientearen gaineko ebazpena eman dezan.